



Errenteriko Udala



Lezoko Unibertsitateko Udala



Oarsoaldea
gure enpleu orokorri berrira



OARTZUNGO
UDALA



PASAIKO UDALA



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa

ELEKTRIZITATEAREN FAKTURA BERRIA

Ulertzeko eta murrizteko gida

NOLA ERAGITEN DIT ALDAKETAK?

Merkatu arautua VS Merkatu librea

- Zure elektrizitate-merkaturatzailea **merkatu librearen** barruan badago, tarifa-aldaketak ez dizu zuzenean eragingo, baina konpainiek merkatu elektriko berrira egokitu dituzte tarifak eta komeniko litzateke aztertzea ea zure tarifa berria lehen bezala komeni zaizun. **Jarri gurekin harremanetan eta lagunduko dizugu!**
- Zure elektrizitate-merkaturatzailea **merkatu arautua**ren barruan badago, zure tarifa automatikoki egokitua izan da ordu-tarte berrietara. Hemen kontsulta dezakezu ordu bakoitzaren prezioa egunero.

Gogoratu zure konpainia elektrikoa zein merkatutan aritzen den argi ez baduzu, horri buruzko gure informazioa kontsulta dezakezula.

AURREZTE-AHOLKUAK

Etxetresna elektrikoen erabilpenean aurreztea

Zenbat aurreztu dezaket puntako orduetan kontsumitzea saihestuz?

	URTEKO KONTSUMOA (KWH)	ERABILERA	KONTSUMOAREN %100A ORDU LAUETAN EGINEZ GEROZKO AURREZPENA	KONTSUMOAREN %100A SAKONUNE ORDUETAN EGINEZ GEROZKO AURREZPENA
GARBIGAILUA	255	Astean 4 aldiz	30,35 €	42,71 €
PLATER-IKUZGAILUA	246	Astean 4 aldiz	29,28 €	41,20 €
LEHORGAILUA	255	Astean 4 aldiz	30,35 €	42,71 €
BEROGAILU ELEKTRIKOA	1400	80 L, 3 pertsonetako familia batentzat	166,62 €	234,49 €
LABEA	150	Astean 2 aldi inguruan (100 ordu/urte)	17,85 €	25,12 €
SUKALDE ELEKTRIKOA	1120	Egunean 1,5 ordu inguruan (450 ordu/urte)	133,29 €	187,59 €
		GUZTIRA	407,73 €	573,83 €



AURREZTE- AHOLKUAK

Etxetresna elektrikoen
erabilpenean aurreztea

GARBIGAILUA, LEHORGAILUA ETA PLATER-IKUZGAILUA

Saihestu puntako orduak, zure garbiketak eta lehorketak
ordu lauetan edo sakonune orduetan programatuz.



AURREZTE- AHOLKUAK

Etxetresna elektrikoen
erabilpenean aurreztea

UR-BEROGAILU ELEKTRIKOA

Programazio-funtzio edo erloju programatzaileak erabil itzazu.
Erloju programatzaile askok WiFiaren bidez konektatzen dira,
abiaraztea urrutitik kontrolatu ahal izateko.



AURREZTE- AHOLKUAK

Etxetresna elektrikoaren erabilpenean aurreztea

LABEA ETA SUKALDE ELEKTRIKOA

Sakonune ordutegia edo ordu lauak aprobetxa itzazu janaria prestatzeko eta puntako orduak saihesteko. Sukaldeko robot programagarri batek edo egosketa moteleko eltze batek ere lagun diezazuke puntako orduetako kontsumoa saihesten.

AURREZTE-AHOLKUAK

Bestelako aurrezte-aholkuak

● KLIMATIZAZIOA KONTROLA EZAZU

Prezio baxuko edo ertaineko orduak erabiltzen saia zaitez zure etxea berotzeko/hozteko, eta itzali itzazu klimatizazio-aparatuak puntako orduetan.

● ZURE FAMILIARI JAKINARAZI EZAZU

Etxean bizi diren pertsona guztiek tarifa-aldaketari nola egin behar zaion aurre jakitea garrantzitsua da. Guztientzat ikusgarria den leku batean (adibidez, hozkailuaren atean) ordutegi-banaketaren diagrama bat jartzeak oso tresna erabilgarria izan daiteke.

● "KONTSUMO FANTASMAK" SAIHESTU ITZAZU

Erabiltzen ari ez zaren guztia deskonekta ezazu eta saihestu ezazu aparatu elektronikoak "stand-by" moduan uzten, batez ere egun batzuetan erabili gabe edo oportetan egongo bazara. Entxufe asko eta korrante-etengailu bat dituzten erregletak erabil ditzakezu hori errazteko.

● EGUZKI-ENERGIAREN ALDEKO APOSTUA EGIN EZAZU

Elektrizitatea sortzeko plaka fotovoltaikoak erabiltzeak fakturaren zati finkoa nabarmen jaitea ekar dezake, aukera jasangarriagoa izateaz gain.

ZALANTZARIK BADUZU EDO AHOLKUA ERA
PERTSONALIZATUAN JASO NAHI BADUZU,
HARREMANETAN JAR ZAITEZ
OARSOALDEAKO ENERGIA BULEGORAREKIN.

energia@oarsoaldea.eus | 943.494.129

ZURE ESANETARA GAUDE!



Errenterriako Udala



Lezoko Unibertsitateko Udala



Oarsoaldea
gure enbete oraindik hitz



OARTZUNGO
UDALA



PASAIAKO UDALA



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa